

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Euskara eta Kultura Saila**

Bizkaiko Foru Aldundiaren 64/2019 FORU DEKRETUA, maiatzaren 28koa; horren bidez, foru diru-laguntzen oinarriak onartzen dira eta deialdia arautzen da 2019. urtean Bizkaiko merkataritza-sozietateek, kooperatiba sozietateek, banakako enpresaburuek eta profesionalek Bizkaian antolatzen dituzten izaera parte-hartzaileko kirol jarduerentzat.

Autonomia Erkidegoko Erakunde Erkideen eta bertako Lurralde Historikoetako Foru Organoen arteko harremani buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7.b.6 artikularen arabera, lurralde historikoei dagokie erakunde erkideek kirolaren sustapenaren arloan emandako arauak garatu eta betearazteko eskumena.

Euskadiko Kirolaren 14/1998 Legeak, ekainaren 11koak, 2.3 artikuluan adierazten du aginte publikoek, beren eskumen-esparruaren barruan kirola egiteko eskubidea behar bezala gauzatzea bermatuko dutela eta horretarako burutuko duten kirol politikak printzipio hauek izango dituela oinarrian, besteak beste: kirol-elkarteak bideratzea eta sustatzea, bai eta kirol arloko antolakuntza-egitura pribatuak onartzea eta babestea ere. Eta eransten du halaber aginte publikoei dagokiela kirol-jarduera gizarte-maila guztietara, batez ere ahulenetara, zabalteko programa bereziak onartzea eta burutzea.

Ekainaren 11ko 14/1998 Lege horren 5 artikulua, berriz, dio lurralde historikoetako foru-organoei dagokiela, zeini bere lurralde-esparruan, kirola guztientzat sustatzeko eskumena, kirol-politika onartzea eta udal-administrazioaren lankidetzarekin gauzatzea.

Bizkaiko Foru Aldundiak konpromisoa du kirol jarduera fisiko parte-hartzaileak eta ez-lehiakorrek laguntzekoa, barauk ahalbidetzen dutenean biztanleriak betera parte hartzea adina kontua izan gabe. Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara eta Kultura Sailaren egitura organikoari buruzko erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 6ko 22/2018 Foru Dekretuak sail horri esleitzen dio eskumen hau: maila guztietako kirol lehiaketak eta jarduerak sustatu eta koordinatzea, gure gizartean kirola aktiboki ager dadin eta harekiko zaletasuna bultzatzea.

Ildo horretan, Bizkaiko merkataritza-sozietateek, kooperatiba sozietateek, banakako enpresaburuek eta profesionalek Lurralde Historikoan parte hartze libreko kirol jarduera mota hauek antolatzeko egiten dituzten ekimenak sustatzeko beharrezko bitartekoak arautzen ditu foru dekretu honek.

Foru dekretu honek erregulazio onaren printzipioak betetzen ditu. Printzipio horiek Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legean daude ezarrita eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 2017ko urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuaren 3. artikuluan jasotzen dira (dekretu horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen da).

Foru dekretu horretan xedatutakoa kontuan hartuta, txosten hauek eman dira foru dekretu hau egin denean:

1. Proiektua sustatu duen sailaren txosten juridikoa.
2. Generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzko txostena.
3. Kontrol ekonomikoari buruzko txostena.
4. Legezketasunari buruzko txostena.

Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 39.k) artikulua ezartzen du foru diputatuen eskumena dela, besteak beste, Foru Aldundiari proposamenak aurkeztea haien sailtako gaiei buruzko foru dekretuen proiektuak onartuz. Bestalde, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 16.1 artikulua ahalmena ematen dio Bizkaiko Foru Aldundiari diru-laguntzen emakida arautuko duten oinarriak



onesteko. Eta Diru-laguntzen Erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 41.1 artikulua aukera ematen du diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia batera izapidetzeko, eta ezartzen du Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluari dagokiola onartzea, egintza bakarrean.

Hori dela bide, Euskara eta Kultura Saileko foru diputatuaren ekimenez, eta aurrez Bizkaiko Foru Aldundiak 2019ko maiatzaren 28ko bileran aztertutik, honako hau,

XEDATZEN DUT:

Artikulu Bakarra.—Diru-laguntza foralaren oinarri arautzaileak eta deialdi publikoa onestea

2019. urtean Bizkaiko merkataritza-sozietateek, kooperatiba sozietateek, banakako enpresaburuek eta profesionalak Bizkaian antolatzen dituzten izaera parte-hartzaileko kirol jarduerentzat Euskara eta Kulturako Foru Sailak emango dituen diru-laguntzen oinarri-arauak eta deialdia onartzen dira. Ondoren jasotzen da oinarrien eta deialdiaren testua. Ondoren jasotzen da oinarrien eta deialdiaren testua.

I. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. oinarria.—Diru-laguntzaren xedea

1. Foru dekretu honen arabera, diru-laguntza jaso dezakete jarduera hauek: herritarrek batera parte hartzea ahalbidetzen duten kirol jarduerak, herritar horien adina edo beste edozein inguruabar kontuan izan barik, eta parte hartze guztiz zabala daukatenak.

Halaber, aurrekoen parekoak izango dira eta jardueratzat joko dira zirkuituak, edo antzekoak diren eta lotuta doazen proba sortak. Berauek jarduera bakartzat hartuak izango dira ondore guztietarako. Zirkuituok edo antzekoak diren proben sorta hauek, edozelan ere, gutxienez hiru (3) eta gehienez hamar (10) proba artekoak izan beharko dira, eta udalerrri batean baino gehiagotan egin.

Diru-laguntzaren eskabidean aurkeztutako proiektuak 2019ko ekitaldiaren barruan burutu beharko dira.

2. Foru dekretu honen ezarpen eremutik kanpo geldituko dira hauek:

- a) Eskola adinean direnek parte hartzen badute, dagokion baimenik ez daukaten jarduerak, Bizkaiko Eskola Kirola Programan jasota ez dauden egoerei baimena emateko prozedura arautzen duen Foru Aginduaren bitartez.
- b) Aurretiazko inskripzio kuota bat, ez daukaten jarduerak. Dena dela, aintzat hartuak izan daitezke adinagatik zein gaitasunagatik talde jakin batzuentzat aipatutako kuotaren ordainketa salbuetsita daukaten jarduerak.
- c) Federazio, club eta kirol elkarteek antolatutako jarduerak.
- d) Herri administrazioek eta beraien erakunde autonomoek, enpresa erakunde publikoek, sektore publikoko sozietateek edo zuzenbide publikoko entitateek antolatutako jarduerak.
- e) Klasifikazioagatiko sari ekonomikoren bat daukaten jarduerak.
- f) Bizkaiko Lurralde Historikotik kanpo egiten diren jarduerak.
- g) 20.000 eurotik beherako aurrekontua duten jarduerak. Oinarri honen 1. puntuaren deskribatutako zirkuituen edo proba sorten kasuan, foru dekretu honen aplikazio-eremutik kanpo geratuko dira beraien probetako batek 7.000 eurotik beherako aurrekontua badauka.
- h) Parte-hartze kuota ordaindu behar den plaza kopurua 500etik behera denean. Oinarri honen 1. puntuaren deskribatutako zirkuituen edo proba sorten kasuan, foru dekretu honen aplikazio-eremutik kanpo geratuko dira: a) beraien probetako baten parte-hartze kuota ordaindu behar den plaza kopurua 200etik beherakoa bada, eta b) zirkuitua edo proba sorta udalerrri bakar batean egiten bada da.
- i) Sexuaren araberako diskriminazioa egiten duten jarduerak edo proiektuak.



3. Diruz laguntzeko gastutzat joko dira batere zalantzarik gabe lagundutako jardueraren izaerarekin bat datozenak, guztiz beharrezkoak direnak eta ezarritako epearen barruan egiten direnak, baina diru-laguntza jaso dezaketen gastuen eskuraketa-kostua ezin da inola ere izan merkatuko balioa baino handiagoa.

Honako hauek ez dira diruz lagundu daitezkeen gastuak:

- a) Ekipo-ondasunak erostea, baldin eta haien amortizazioa luzeagoa bada dekretu honetan jasotzen diren jarduerak egiteko epea baino.
- b) Banku-kontuetako interes zordunak.
- c) Interes, errekaru eta zehapen administratibo eta penalak.
- d) Prozedura judizialen gastuak.
- e) Zeharkako tributuak (BEZa barne) ez dira diruz lagundu daitezkeen gastuak baldin eta berreskuratu edo konpentsatu egin badaitezke. Kasu horretan, gastuen zenbatekoek BEZik gabe agertu behar dute, hala eskabidean agertzen den aurrekontuan, nola diru-laguntzaren justifikazioarekin batera aurkeztuko den aurrekontu gauzatuan. Era berean, ez dira diruz lagundu daitezkeen gastuak errentaren gaineko zerga pertsonalak.
- f) Oro har, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 29. artikularekin bat etorrira, beren-beregi kanpo utzitakoak

4. Foru dekretu honen helburua pertsona edota erakunde eskatzaileen ekintzak babestu eta osatzea da; hori dela eta, ez dira inoiz finantzatuko jarduera egiteagatik sortutako gastu guztiak.

2. oinarria. — *Pertsona edota entitate onuradunak*

1. Maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 12. artikuluan jasotako egoeretako batean ez egon arren, baldintza hauek betetzen dituzten Bizkaiko merkataritza-sozietateak, kooperatiba sozietateak, banakako enpresaburuak eta profesionalak izan daitezke foru dekretu honen bidez araututako diru-laguntzen onuradunak:

— Zerga-egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan izatea.

Eskaera-orriak aurkezteko epea amaitzen den egunean bete beharko dira betekizun horiek guztiak. Halaber, prozeduran zehar ere bete behar dira, diru-laguntzaren justifikazioa aurkeztu arte.

2. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen III. tituluan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako 2007ko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan ezarritako betebeharrak betetzen ez dituztenak dekretu honek arautzen duen deialditik kanpo geldituko dira.

II. TITULUA

ARAUBIDE JURIDIKOA

3. oinarria. — *Araudi aplikagarria*

Foru dekretu honetan jasota ez dagoenerako, honako hauek ezarriko dira: Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua, 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Diru-laguntzen Erregelamendua, eta, haien guztien osagarri moduan, Administrazioen Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 2015eko urriaren 1eko 40/2015 Legea eta beste edozein arau xedapen, duen izaeragatik ezartzeko modukoa baldin bada.

Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Araua erakunde pribatu hauei aplikatuko zaie: aurrekontu-ekitaldian zehar Bizkaiko Foru Aldundiaren 100.000 euro edo gehiagoko laguntzak edo diru-laguntzak jasotzen dituztenei edo haien urteko diru-sarrerren %40 Aldundiaren laguntzetatik edo diru-laguntzetatik badator, betiere guztienez 5.000 euro badira.

**4. oinarria. — Arau-hausteak eta zehapenak**

Arau-hauste eta zehapenei dagokienez, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren IV. tituluan xedatutakoa ezarriko da, bai eta arau hori garatzen duen erregelamenduaren IV. tituluan xedatutakoa ere.

**III. TITULUA
PROZEDURA****5. oinarria. — Eskabideak aurkezteko lekua eta epea**

1. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikuluan 2. eta 3. zenbakietan xedatutakoarekin bat, dekretu honetan arautzen diren diru-laguntzen eskatzaileak behartuta daude Bizkaiko Foru Aldundiarekin harremanak bitarteko elektronikoen bidez izatera.

Eskatzaile bakoitzak gehienez, hiru (3) eskabide aurkeztu ahal izango ditu, ekitaldi bakoitzeko bat (1). Eskatzaile batek hiru (3) eskabide baino gehiago aurkezten baditu, erregistratutako azkenak baztertuko dira.

2. Eskabideak aurkezteko, hilabeteko (1) epea dago, foru dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.

6. oinarria. — Eskabidearekin batera aurkeztu behar diren agiriak

1. Diru-laguntzaren eskabide espezifikoak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa egongo dira eskuragarri (<https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera>), eta bertan bete eta aurkeztu beharko dira, 39/2015 Legearen 66.6 artikuluan ezarritakoarekin bat.

2. Dokumentazio hau erantsi beharko da:

- a) Banku-helbideratzearen fitxa, behar bezala beteta, alta edo aldaketaren bat egon bada, bakarrik.
- b) Pertsona fisikoren batek entitate baten izenean aurkezten baldin badu eskaera bere NAN elektronikoa bidez, hauek ere ekarri beharko ditu: entitate horren IFZaren kopia, eta ahalordetze-eskirituraren fotokopia edo entitate horren izenean aritzeko halako ordezkari egiaztatzen duen bestelako dokumenturik.

Dokumentazio hau ez da aurkeztu beharko baldin eta aurretiaz aurkeztu bada foru aldundi honetako Kirol Zerbitzuan, eta ez bada aldaketarik egon azken hiru urteetan.

3. Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 2. artikulua aintzat harturik, adierazi beharko da zein diren erakundeak urtean aurreikusten dituen diru-sarrera guztiak. Halaber, Foru Dekretu honen 9. oinarrian datozen balorazio irizpideak aplikatu ahal izateko, jardueraren azalpen-fitxa bete beharko da.

4. Bizkaiko Foru Aldundiak egiaztatu egingo ditu eskabidea sinatzen duen pertsonaren identifikazio-datuak.

Halaber, Bizkaiko Foru Aldundiak eskatzailearen banku-kontuaren titulartasun-datuak egiaztatuko ditu, betiere eskatzaileek berariaz uko egiten ez badiote horri.

Datu pertsonalak eskuratzeko modua bat etorriko da Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduan (EB) eta erregelamendu hori garatzen duen araudian ezarritakoarekin bat, bai eta Datu pertsonalak babestu eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoarekin bat etorritik.

5. Halaber, eskaera hau sinatuta baimena ematen zaio Euskara eta Kulturako Foru Sailari Ogasunaren eta Gizarte Segurantzaren zuzendariak eskatzeko, Diru-laguntzei buruzko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 21.3 artikuluan ezarritako ondorioetarako.

7. oinarria. — Eskaera zuzendu eta hobetzea

1. Eskabideak behar bezala beteta ez badaude, edo eskabidearekin batera foru dekretu honetan eskatutako agirietakoren bat aurkeztu ez bada, orduan erakunde inte-



resdunari errekerimendua egingo zaio, hamar (10) egun balioduneko epearen barruan hutsunea zuzendu edo beharrezko agiriak aurkez ditzan; hala egiten ez badu, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela eta, behin ebazpena emanda, eskabidea artxibatu egingo dela adieraziko zaio.

2. Edonola ere, Euskara eta Kulturako Foru Sailak aurkezten diren eskabideak behar bezala ulertzeko eta ebaluatzeko beharrezkotzat jotzen duen informazio osagarri guztia eskatu ahal izango du.

8. oinarria. — Diru-laguntza emateko araubidea

Diru-laguntzak norgehiagoka sistema erabiliz, hau da, aurkeztutako eskabideak alderatuko dituen epaimahai kalifikatzaile bat eratuz emango dira; epaimahai horrek, 9. oinarrian ezarritako balorazio-irizpideak kontuan hartuta, eskabideen arteko lehentasun-ordena ezarriko du, eta foru diru-laguntzak puntuaziorik altuenak lortu dituztenei emateko proposamena aurkeztuko du, betiere aurrekontu-sailean ezarritako zenbatekoa muga izanik.

9. oinarria. — Diru-laguntzak baloratzeko irizpideak

1. Diru laguntza eskabideen ebazpen proposamena egin eta berauen zenbatekoak ezartzeko xedez, Epaimahai Kalifikatzaileak honako irizpideak eta berauen ponderazioa izango ditu kontuan. Gehienez 100 puntu banaturik, honela ezarriko dira:

- a) Jarduerak duen inskripzio plaza kopurua: 25 puntura arte.
- b) Jarduera promozionatzeko bitartekoak: web eta sare sozialak. 15 puntura arte.
- c) Jarduerak duen inklusibitatea, parte hartzaile motari dagokionez eta parte har daitekeen jarduerari dagokionez. 40 puntura arte.

Inklusiboagotzat joko dira, eta beraz puntuazio altuagoa lortuko dute, honakoa zaintzen duten jarduerak: plaza profil pluralagoa sexu, adin eta urritasunei begira, eta erraztasun handiagoa eta soiltasuna, jardueran aritzeko.

- d) Jarduerak hartzen duen udalerrri kopurua, bai bertan egiten delako, bai bertatik igaro: 10 puntura arte.
- e) Euskalit-en 3K programaren «Kudeaketa Aurreratuko Diploma» indarrean duten eskatzaileak: 10 puntu.

2. Epaimahai Kalifikatzaileak ezarritako gutxieneko puntuaziora iristen ez diren proiektuei dagozkien eskabideak ezetsi egingo dira.

3. Diru laguntzen gehieneko zenbatekoa aurrekontu araziaren %50a artekoa izango da, eta inoiz ez 9.000 eurotik gorakoa.

4. Ez da ezelan ere emango eskatutako diru laguntzaren zenbatekoa baino handiagorik.

5. Diru-laguntzen Erregelamendua onesten duen martxoaren 23ko Bizkaiko Foru Aldundiaren 34/2010 Foru Dekretuaren 27. artikularekin bat, emandako diru laguntza eskatzaileak aurkeztutako aurrekontuaren gaineko, edo aurrerago aldaketarik baleuka, beronen gaineko ehuneko bat aplikatuz ezarriko da. Ehuneko honek balioko du erreferentzia moduan, jardueraren behin betiko kostuaren gainean diru laguntzaren zenbatekoa zein izan den ezartzeko, alegia.

6. Proposatutako azken diru laguntza kopuruak borobildu ahal izango dira behe-rantz, zentimoei dagokienez.

10. oinarria. — Aholkularitza

Euskara eta Kultura Saileko Kirol Zerbitzuak behar den laguntza tekniko edo aholkularitza eskainiko ditu foru dekretu hau dela-eta sortutako zalantza edo kontsulta guztiak argitzeko, (horretarako, www.bizkaia.eus/laguntzailekirolak foru webgunea erabili ahal da).

11. oinarria. — Epaimahai kalifikatzailea

1. Epaimahai kalifikatzaile bat eratuko da aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko. Epaimahaikideak Euskara eta Kulturako foru diputatuak izendatuko ditu, foru



agindu bidez. Izendapen horiek egiteko, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Aginduaren 44. artikuluan ezarritakoa beteko da.

2. Epaimahai kalifikatzaileak, diru-laguntzak emateko irizpideak kontuan hartuta, ebazpen-proposamena aurkeztuko dio Euskara eta Kulturako foru diputatuari, behin betiko ebazpena eman dezan.

12. oinarria. — Ebazpena

1. Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 22.4. artikuluan xedatutakoa betez, deialdi honetan, interesdunei ez zaie, lehenbizi behin-behineko ebazpen-proposamena eman, eta, gero, entzunaldiaren izapidea eskainiko, zeren prozeduran interesdunek ekarri dituzten egitateak, alegazioak eta frogak besterik ez baitira jaso eta kontuan hartuko.

2. Deialdia ebatzi baino lehen, Kirol Zerbitzuak egiaztatuko du ea eskatzaileek egunean dituen zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzari dagozkionak. Aurreko guztia egiaztatu ondoren ikusten bada eskatzailearen batek betebeharrak horietako edozein ez duela betetzen, errekerimendua egingo zaio 10 eguneko epean egoera hori erregulariza dezan, eta ohartaraziko zaio, horrela egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela.

3. Eskabideei buruzko ebazpena emateko eta jakinarazteko epea 4 hilabete izango da, gehienez, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik zenbatuta. Euskara eta Kulturako foru diputatuak emango du ebazpena, epaimahai kalifikatzailearen proposamena kontuan hartuta.

Epe hori eskabideari buruzko ebazpen espresurik eman eta jakinarazi gabe igarotzen bada, eskabidea ezetsizat joko da; hala ere, geroago ebazpen espresua eman ahal izango da.

4. Deialdi hau ebatzeko ematen den foru agindua deialdi publiko honetarako eskabidea aurkeztu duten entitate interesdunei jakinaraziko zaie; horretarako, iragarkia argitaratuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean. Egoitzan agertzeko sistemaren bidez ere jakinaraziko da.

Foru agindu horretan berariaz jasoko da ebazpenak administrazio-bidea agortzen duela eta interesdunak aukerako berraztertze errekurtsoa jar dezakeela foru agindu horren aurka, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara eta Kulturako foru diputatu andrean, hilabeteko (1) epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian, bi (2) hilabeteko epearen barruan; epeok jakinarazpena egin eta biharamunean hasiko dira zenbatzen.

13. oinarria. — Bateragarritasuna beste diru-laguntza batzuekin

1. Foru dekretu honen babesean emandako diru-laguntzak bateragarriak izango dira helburu bererako Estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko edozein administrazioek edo erakunde publikok zein pribatuk ematen dituzten diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin.

2. Diru-laguntza emateko kontuan hartu diren inguruabarretakoren bat aldatzen bada, eta betiere aldi berean udalerrietako, autonomia-erkidegoetako, estatuko edo nazioarteko beste administrazio edo erakunde publiko batek emandako beste diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabideren bat lortzen bada, gerta liteke diru-laguntza emateko ebazpena aldatzea, zeren foru dekretu honen bitartez araututako diru-laguntzen zenbatekoa, bakarrik zein beste diru-laguntza edo laguntza batzuekin bat eginda (finantzaketa propioa barne), inolaz ere ezin baita izan onuradunak egin beharreko jardueraren kostua baino handiagoa.

3. Foru dekretu honetan jasotako diru-laguntzek Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 (EB) Araudian xedatutakoa bete beharko dute. Araudi hori 2013ko abenduaren 24ko Europako Erkidegoen Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (352. zenbakian), eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Itunaren 107. eta 108. artikulua de minimis laguntzei aplikatzei buruzkoa da. Honen ondorioz, araudi hori ez



betetzeak erantzukizun penala, zibila eta administratiboa ekar liezaioke arau-hausleari. Europar Batasunak ezarritakoaren arabera, de minimis laguntza, guztira, ez da 200.000 euro baino handiagoa izango hiru zerga-ekitalditan.

IV. TITULUA

DIRU-LAGUNTZEN KUDEAKETA ETA JUSTIFIKAZIOA

14. oinarria. — Diru-laguntzaren ordainketa

1. Deialdi hau ebazteko ematen den foru agindua Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta ondorengo hamar egun baliadunetan onuradunak ez badio beren beregi eta idatziz uko egiten, diru-laguntza onartu duela ulertuko da.

Diru-laguntza eman dela Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren, 10 egun baliadun igaro eta berehala, Kirol Zerbitzuak hari dagokion zenbatekoaren ordainketa izapidetuko du Ogasun eta Finantzen Foru Sailean, eta persona edo erakunde onuradunei ez zaie horretarako inolako bermerik eskatuko.

2. Diru-laguntza ordaindu baino lehen, onuradunek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela egiaztatuko da.

Egiaztapena egin ondoren ikusten bada onuradunetako batek betebehar horietako edozein ez duela betetzen, errekerimendua egingo zaio 10 eguneko epean egoera hori erregulariza dezan, eta ohartaraziko zaio, horrela egiten ez badu, emandako diru-laguntza jasotzeko eskubidea galduko duela.

15. oinarria. — Hartzailearen ekimenez egindako itzulketa

1. Martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 76. artikuluan xedatutakoaren arabera (dekretu horren bidez, Diru-laguntzen Erregelamendua onesten da, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua garatzen duena), onuradunak bere ekimenez itzuli ahal izango du Bizkaiko Foru Aldundiak emandako diru-laguntza, foru erakundeak aurretik hala eskatu gabe.

Halakoetan, Bizkaiko Foru Aldundiak diru-laguntza benetan itzultzen den arte sortutako berandutze-interesak kalkulatuko ditu, aipatutako 76. artikuluan eta 5/2005 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira.

2. Entitate onuradunak berak eskatuta foru diru-laguntza itzultzeko ordainketa-gutun bat erabili behar da. Ordainketa-gutun hori Kirol Zerbitzuaren bulegoetan izapidetuko da, onuradunak eskaera aurkeztu eta gero. Ordainketa-gutunean honako hauek adierazi behar dira: itzuli beharreko zenbatekoa (printzipala eta berandutze-interesak), ereduaren kodea eta diru-sarreraren zergatia, itzuli behar den diru-laguntzari erreferentzia eginda.

3. Diru-laguntzaren onuradunak finantza-erakunde batean ordainketa egin ondoren, ordainketaren kopia edo diru-sarreraren frogagiria bidali beharko dio Kirol Zerbitzuari.

16. oinarria. — Justifikazioa egiteko epea eta era

Foru dekretu honen bitartez araututako diru-laguntzen onuradunek konpromiso hauek bete behar dituzte:

1. Jarduera 2019ko ekitaldian egin behar dute oso-osorik.
2. Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Diru-laguntzei buruzko Erregelamenduaren 57. artikuluekin bat etorrira, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara eta Kultura Sailean justifikatzea jarduerak egin direla, laguntza ematea eragin zuten baldintzak bete direla, eta diruz lagundu den proiektuari dagokion gastua nola aplikatu den ere bai. Horretarako, justifikazio-eredua aurkeztu beharko da Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan (<https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera>), 2020ko martxoaren 20a baino lehen (egun hori barne), dokumentazio honekin batera:
 - a) Diruz lagundutako jardueren nondik norakoei buruzko memoria, bertan honako hauek zehaztuta: noraino burutu diren jarduerak, bai eta diruz lagundutako proiekturako erabili diren giza baliabideak eta baliabide materialak ere. Memoriak ekarri beharko du, halaber, parte-hartzaileen zerrenda bat, ze



- parte-hartze kuota odaindu duen ezarriz eta adinaren arabera zein sexuaren arabera desagregaturik.
- b) Egindako jardueren kostua justifikatzen duen txosten ekonomikoa, honako alderdi hauek jasotzen dituena:
- 1) Proiektuari egotzitako sarreraren eta gastuen egoera-orria, egoitzan dagoen ereduaren arabera.
 - 2) Gastu-partida bakoitzean, diru-laguntza jaso duen jardueraren gastuen zerrenda, egoitzan dagoen ereduaren arabera.
 - 3) Gastuen frogagiriak edo haien fotokopiak; frogagiri horiek aurrekontu araztuaren kontzeptuei buruzkoak izango dira. Aurkeztuko diren frogagiri eta faktura guztien zerrenda ordenatua ere ekarri beharko da, zenbatekoa eta aurrekontuaren zein atali dagokien zehaztuta.
 - 4) Diruz lagundutako jarduera finantzatzen duten diru-laguntzen, laguntzen, sarreraren edo baliabideen xehetasuna, eta, hala bada, finantzaketa propioarena ere bai. Xehetasun hori egoitzan dagoen ereduaren arabera egingo da.
 - 5) Diruz lagundutako gastuaren aurrekontua justifikatzeko, 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 29.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, foru diru-laguntzaren erakunde onuradunak egiaztagiriak aurkeztu behar ditu, gutxienez hiru hornitzailek egin dizkioten eskaintzak justifikatzeko, baldin eta administrazio-kontrataziorako araudian kontratu txikirako ezarritako zenbatekoak gainditzen badira, salbu eta kontratuaren ezaugarri bereziak direla-eta merkatuan ez badago hala-korik egin dezakeen erakunde nahikorik edo gastua eskabidea aurkeztu aurretik egin bada.
- Aurkezten diren eskaintzen artean aukeratzeko, efizientzia- eta ekonomia-irizpideen arabera jokatu da. Hala, proposamen ekonomikorik onena aukeratzeko ez denean, beren-beregi justifikatu beharko da inguruabar hori, memoria baten bidez.
- c) Jarduerari dagozkion eskuorriak, kartelak, argazkiak, argitalpenak, ikus-entzunezko materiala zein material informatikoa, edo izaera grafikoa duen beste edozein agiri, bertan agerrarazi behar delarik argi ikusteko moduan jarduerak Bizkaiko Foru Aldundiaren diru-laguntza jaso duela. Horretarako berauetan txertatu beharko dira Bizkaiko Foru Aldundiaren eduki instituzionalak, foru dekretu honen 17. oinarriko e) letrak jasotzen dituen baldintzetan. Betebehar honek eragiten die diru laguntzaren emakidaren jakinarazpena egin ondoren garatzen diren jarduerari.

17. oinarria. — Diru-laguntzaren onuradunaren beste betebehar batzuk

Onuradunek betebehar hauek ere izango dituzte:

- a) Diru-laguntza emateko orduan kontuan hartu den edozein alderdi objektibo edo subjektibok aldaketarik izan badu, horren berri ematea diru-laguntza eman dionari, egoitza bidez.
- b) Jardueraren hasiera-dataren eta amaiera-dataren berri ematea diru-laguntza eman dionari, egoitzaren bidez. Halaber, diruz lagundutako jarduera kontrolatzeko, haren jarraipen egiteko edo jarduera ikuskatzeko eginkizunak edo ahalmekak gauzatzeko lanak erraztu beharko ditu.
- c) Euskara eta Kulturako Foru Sailari laguntzea, hala eskatzen bazaio, eta erakundearen gaineko edozein informazio ematea (azterlanak, inkestak, datu estatistikoak, etab.).
- d) Euskara eta Kulturako Foru Sailak, Ogasun eta Finantzen Foru Sailak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egiten dituzten egiaztapen-jarduerak onartzea.



- e) Diru-laguntza eman ondoren editatutako material guztietan eta jendaurreko agerpen guztietan, Bizkaiko Foru Aldundiaren babesa jaso dela agerrarazi beharko da; horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiaren erakunde-irudian ezarritako elementuak baliatuko dira, nahitaez, eta logotipoaren aldamenen esaldi hau agertuko da hitzez hitz: «Ekintza honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du», edo bestela «Bizkaiko Foru Aldundiak babestutako ekintza / Actividad subvencionada por la Diputación Foral de Bizkaia».
- Euskara hutsez garatutako proiektuetan, gainera, Euskararen Txantxangorriaren irudia agertu beharko da.
- f) Bizkaiko Foru Aldundiari dohainik eta eskusibitaterik gabe lagatzea aurkeztutako dokumentazioan dagoen informazio tekniko eta grafikoa erabiltzeko eskubidea, informazio hori zabaltzeko edo/eta argitaratzeko, edozein baliabide edo formatu bibliografiko, ikus-entzunezko edo informatiko erabiliz edo teknikaren erabilerak ahalbidetzen duen beste edozein erabiliz.
- g) Edozein kasutan ere, onuradunak beste interesdun batzuen aurretik eman behar dio lehentasuna Foru Aldundiari, diruz lagundutako esku-hartzeari buruzko memoria argitaratzeko.
- h) Zaintzea emakumeen eta gizonen tratamendua, protagonismoa eta balorazioa baliokideak izan daitezen, eta berdintasuna, presentzia orekatua, dibertsitatea, erantzunkidetasuna, eta generoaren rol eta identitateen aniztasuna balio dituen irudi bat sustatzea idatzizko zein ahozko komunikazioetan, ikonografian, publizitate-ekintzetan, barruko zein kanpoko komunikazio formal eta informalean, eta proiektuari edo jarduerari lotutako edo proiektua edo jarduera egiteko sortutako materialetan.
- i) Emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzea lanpostuen sarbidean, kontratazioan eta iraungipenean, lanbide-sailkapenean, sustapenean, prestakuntzan, laneko segurtasunean eta osasunean, ordainsari-politikan, erantzunkidetasunean, bizitza pertsonala, lan-bizitza eta familia-bizitza bateragarri egitean, lanaldiaren iraupen eta antolamenduan, ekintza sindikalean, ordezkartzan eta negoziazio kolektiboan, betiere diskriminaziorik sortzen ez duten lan-baldintza duin eta gizalegezkoak bermatuta.
- j) Proiektua garatzen ari den bitartean hizkera sexistarik ez erabiltzea sortzen dituzten dokumentuetan eta euskarrietan (idatzietan, irudietan, eta abarretan), eta sortzen den pertsoneri buruzko edozein estatistiketan datuak sexuaren arabera berezita jasotzea, hala ezartzen baitu arlo horretan gorde behar diren printzipio nagusiak jasotzen dituen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2018ko ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 3. artikulua.
- k) Pertsona fisiko edo juridikoek 250 langiletik gora badute, egiaztatu behar dute emakumeen eta gizonen berdintasunerako plan bat dutela, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako 2007ko martxoaren 22ko 3/2007 Legean ezarritakoarekin bat, eta benetan aplikatzen dutela. Justifikazioarekin batera betebeharrak izanaren erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko da.
- l) Pertsona fisiko edo juridikoek hamabost langiletik gora badute, bermatu beharko dute neurriak hartzen dituztela lan-arloan indarkeria matxista prebenitzeko, hari aurre egiteko, haren jarraipena egiteko, hura ebaluatzeko eta desagerrarazteko, bereziki sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari aurre egiteko. Justifikazioarekin batera betebeharrak izanaren erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko da.
- m) Bizkaiko Foru Administrazioak emandako diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 13. artikuluan eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsi den Diru-laguntzen Erregelamenduaren 54. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako gainerakoak.



- n) Deialdi honi dagokionez, foru diru-laguntza baten entitate onuradunek bete egin behar dituzte 5/2005 Foru Arauaren 27. artikuluan eta Diru-laguntzen Erregelamenduaren 53. artikuluan azpikontratazioa dela-eta zehazten diren betekizunak eta debekuak. Gehienez ere, diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren % 90 azpikontratatu ahal izango da.

18. oinarria. — Itzulketa

1. Jasotako diru-laguntza eta dagozkion berandutze-interesak itzuli beharko dira, baldin eta ez badira betetzen aurreko oinarrietan, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 33. artikuluan edo foru arau hori garatzen duen Erregelamenduan jasotako bete-beharretariko bat edo batzuk. Besteak beste, honelakorik gertatzen bada:

- Frogatu beharra betetzen ez bada.
 - Emandako diru-laguntzari dagokion helburua betetzen ez bada.
 - Diru-laguntza justifikatzen ez bada edo Foru dekretu honetan ezarritakoaren arabera nahiko edo behar bezala justifikatzen ez bada, justifikatu ez den diru-laguntzaren zatia eta sortutako berandutze-interesak itzuli beharko dira, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Ondarearen Zerbitzuak horretarako eskaera egin ondoren.
 - Proiektua egiteko epea betetzen ez badu, jasotako diru-kopurua eta sortutako berandutze-interesak itzuli beharko ditu erakunde onuradunak, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza Nagusiak horretarako eskaera egin ondoren.
 - Onuradunak diru-laguntza lortu badu, nahiz eta horretarako baldintzak bete ez.
 - Ezarritako kontrol-jarduerak egiteari uko egitea edo eragozpenak jartzea.
 - Foru dekretu honetan ezarritako gainerako kasuak betetzen ez badira.
2. Diru-laguntza jaso duen jardueraren kostua baino finantziazio gehiago jasotzen bada, diru-laguntza itzuli beharko da.

19. oinarria. — Aurrekontuko partida

1. Deialdi honetako diru-laguntzak emateko 2019. urtean indarrean dagoen aurrekontu-muga honako hau da:

Berrogeita zortzi mila bederatziehun eta berrogeita zazpi euro (48.947 euro), 2019ko ekitaldiko G/0403/341110/44300/0000_2017/0018 aurrekontu partidaren kargura.

2. Deialdiko eskabide guztiak ebatzi ondoren, guztira diru-laguntzetarako emandako diru kopurua aurrekontu-muga baino txikiagoa balitz, gastu-baimenaren ezeztapena tramitatuko litzateke, soberan den zenbatekoan.

AZKEN XEDAPENAK**Amaierako Lehen Xedapena. — Arauak emateko gaikuntza**

Ahalmena ematen zaio Euskara eta Kulturako foru diputatuari foru dekretu hau garatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak eman ditzan.

Amaierako Bigarren Xedapena. — Indarrean jartzea

Foru dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2019ko maiatzaren 28an.

Euskara eta Kulturako foru diputatua,
LOREA BILBAO IBARRA

Ahaldun Nagusia,
UNAI REMENTERIA MAIZ